



ORDENANTZA 15. ZK

AGURAINGO UDALA ARABAKO LURRALDEA

OSTALARITZA GREMIOKO ESTABLEZIMENDUEN KOKAPENA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. Art - EZARPEN EREMUA

Honako araudiak Aguraingo hiri lurzoru guztiari eragingo dio.

2. Art- ADIKZIOA ERAGITEAGATIK SAILKATU BEHARREKO JARDUERAK.

2.1-Honako arauak ondorengo taldeetan sailkatu diren establezimendu publikoak arautuko dituzte:

- * I TALDEA .- Jatetxeak.
 - .- Kafetegi eta tabernak.
 - .- Kafetegiak
 - .- Tabernak eta bodegoiak
 - .- Jolas eta gizarte erabilerako establezimenduak, jende orokorrarentzat diruaren truke edo kontraprestazioz) zein bertako bazkide drenentzat edariak ateratzen badituzte.

- * II .TALDEA .- Taberna bereziak, A eta B kategoriakoak.
 - .- Whiskeriak
 - .- Klubak
 - .- Taberna Amerikarrak.
 - .- Pub-ak

- * III. TALDEA .- Discotekak
 - .- Dantza aretoak
 - .- Kafe antzokiak edo ikuskizunak dituztenak.
 - .- Bingoak



2.2. Establezimendu bat bi taldetan sartuta egonez gero, hurrengo rrikuluan adierazten diren distantziei dagokienez murrizketa gehien duen araudia aplikatuko da.

2.3.- Establezimendu baten izena aurreko paragrafoko taldeetariko batean ez badago, distantziak mugatzeko kontuan hartuko da agintari eskumendunak establezimenduak ixteko baimendu duen gehieneko ordutegia, eta gero ordutegi horren antzekotasuna edo baliokidetzat dela-eta dagokion taldean sartu.

3. Art - SALBUESPENAK

Ordenantza honetan ezartzen diren distantziak Foru kalean eta Herrigune Historikoko kale eta plazetan dira aplikatzekoak. Neurketak fatxada-lerroan bertan dauden lokalei eragingo die, eta ez dira aplikatuko lokalen artean ezarritako neurketen gainerako egoerak.

4. Art.- GUTXIENeko DISTANTZIA

.- 25 metro I taldea osazen duten establezimenduen artean eta azken horiek eta gainerako taldeen artean.

.- 150 metro II taldekoen artean eta azken horiek eta III. taldekoen artean.

.- - 250 metro, III taldekoen artean.

5. Art- DISTANTZIAK ETA NEURKETEN ZENBAKETA

5.1.- Distantziak bide laburrenetik neurtuko dira.


5.2.- Instalatzekoa den establezimendu baten eta jadanik dagoenaren arteko distantzia zehazteko lerro bat jarriko da. Lerro horren hasiera jadanik eraiki eta baimendutako lokalaren fatxadaren muturreko puntua izango da, instalatzekoa den establezimendutik alderik hurbilenean. Lerro horren amaiera, ordea, instalatzekoa den jarduera egingo den lokalaren fatxadaren muturreko puntua, jadanik instalatuta dagoen lokaletik alderik hurbilenean.



Neurketak egiteko, honakoak hartzen dira establezimendu baten fatxadako muturreko puntutzat:

1º.- Lokalaren perimetroko ebakiduren arteko puntuak eraikinaren fatxadarekin.

Adibideak:



a = Neurketak hasteko puntua

2º.- Eraikinaren fatxadan lokalaren perimetroak egiten dituen proiektzioen ebakiduren arteko puntuak eraikinaren fatxadaren gainean

5.3.- Ordenantza honen ondorioetarako bidetzat hartuko dira kaleak, galtzadak, plazak eta bideak, etengabeko jabari publikokoak diren artean. Horiek izan ezean, oinezkoak ibiltzen diren jabari edo erabilera publikoko lurrak hartuko dira bidetzat.

Fatxadatzat joko dira fatxada bakar bat eratzen duten lokal edo lokalen kanpoko parametro guztiak, baldin eta euren artean jarraikortasun irtenbiderik ez badago.


5.4.- Eraikuntzaren oinetako edozein kokagunetan egingo da lokalaren proiektzioa fatxadan.

EGOERA OROKORRAK


1º.- Fatxada-lerro berean edo gune berean edo eraikin bakartu berean dauden lokalak.

Adibidea:


A) Fatxada berdina




Adibideak:




a ZUZENA a




EZ ZUZENA




a ZUZENA a





EZ ZUZENA




a ZUZENA a



EZ ZUZENA




B) Etxadi berean



Baldin eta $L = L\prime$ bada, bietatik txikiena hartuko da kontuan.


C) Eraikin bakartuan



Baldin eta $L = L\prime$ bada, bietatik txikiena hartuko da kontuan.


2º.- Kale berean eta fatxada-lerro desberdinean.

Egoera horretan, kontuan hartu beharreko distantzia honako lerroa izango da: jadanik zehaztutako abiapuntutik hasita perpendikularki kalearen ardatzeraino doan lerroa. Ondoren ardatz horretatik jarraituta ardatz horrek perpendikularrarekin egiten duen ebakiduraren punturaino doa azken puntuan zehar. Azkenik, puntu hartatik perpendikular hori jarraituz jadanik zehaztutako bukaeraraino doa lerroa.




3º.- Kale berean baina fatxada-lerro desberdinean.

Egoera honetan jarraitu beharreko irizpidea hurrengo egoeraren antzekoa izango da, eta ibilbide laburrenean zehar jarraiko kaleen ardatzak jarraituko ditu beti.




4º.- Plazak zeharkatzea

Ibilbide horretan plazaren bat zeharkatu behar denean plaza horien ardatzei jarraituko zaie bai perpendikular, lauki edo biribilei ere. Horien trazadurak beste figura lau batzuk izanez gero, hasierako eta bukaerako puntuetako tangentein perpendikularrak direnak hartuko dira aintzat.



5º.- Alakak egonez gero.

Etxadietako izkinek alaka itxura badute, irizpideak ondorengo eskemakoak izango dira.



6.Art - ESKAEREN ZUZENTASUNA

Udalari lokal baterako lizentzia eskatu eta aldez aurretik lehentasuna duten beste eskatzaile batzuek eskatutakoarekin distantzia aldetik bateraezina bada, ukatu egingo da, eta beste eskatzaileek eskatutakoaren izapideekin jarraitu egingo da.

Sailkatutako establezimenduetako bat jartzeko aukerari buruzko galderari baiezko erantzuna emateak ez du zuzenean jarduera horretarako eskubide atzeraezin bat sortzen, baldin eta egindako galderari erantzuna eman zenetik lizentzia eskatu zenera arte aurreko paragrafoan jasotako egoera ematen bada; horrelakoetan lizentzia eskatu zeneko datak izango du lehentasuna.

7. Art – JARDUERA ALDAKETA

Lizentzia izanda instalatu diren jarduera guztiak talde bereko edo eheko talde batekora aldatu daitezke. Hala ere, aldatzeko eskaera goragoko talde bateko jarduerarako bada, 3. artikulua talde horretarako zartzen dituen distantziak betez gero izango da bakar-bakarrik posible.



8. Art.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Instalazio-lizentziaren eskaeran zein mota horretako arduera instalatzeko aukerari buruz egindako kontsultan, honakok aurkeztuko dira edozein direla ere dagokion inprimakian bete beharreko datuak:

- a) 1:1000 eskalako planoak. Plano horretan lokalak jadanik Egon dauden beste batzuekiko duen kokapena adieraziko da zehatzmehatz.
- b) 1:100 eskalako planoak. Plano horretan argi eta garbi adieraziko da lokalaren banaketa zein den eta hurbileko etxebizitzek Nola eragiten dioten.
- c) Berariazko adierazpena, eskatutako lizentziak helburu duen jardueraren kategoriarena.

9. Art.- LOKALAK HANDITZEA ETA BANAKETAK

1º.- Ordenantza honetako edozein establezimendutan handitze-lanak egin daitezke, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen badira:

- a) Ez ditu talde desberdinen arabera ezarritako distantziak gaindituko, lehen adierazi diren neurtzeko irizpideei jarraituz.
- b) Lehengo jardueraren eta handitze-lanaren artean komunikazioa egotea beti, etorkizunean titulartasun bat baino gehiago ez izateko moduan.
- c) Handitze-lanaren ondorioz lokalak bere kabuz eta era independentean jarduteko moduko osagaiak ez izatea.
- d) Handitze-lanak baimendutako establezimenduaren sailkapena ez aldatzea. Sailkapenaren aldaketa eragiten badu, talde berrirako zehazten diren distantziak betetzea.

2º.- Ordenantza hau indarrean sartu aurretik lokala abian jartzeko udalaren lizentzia daukaten lokalek, distantzien irizpideak betetzen ezean, handitze-lanak egin ahal izango dira, baldin eta handitze hori antzinako lokalak zuen azaleraren halako bi baino gehiagokoa ez bada.

Horretaz gain, aurreko puntuko B, C eta D paragrafoetako baldintzak beteko dira.

3º.- Handitze-lanak egiteko eskaera guztiekin batera indarreko xedapenek adierazten dituzten agiri tekniko eta administratiboak aurkeztuko dira.



4º.- Ez da inolaz ere baimenduko Ordenantza honetan jasotako jardueraren bat beste bi jardueratan zatitzea, edo jarduera horiek ordenantza hauetan jasota egon daitezkeen jarduera batzuetan berriro zatitzea.

10. Art – LIZENTZIAK IRAUNGITZEA.

Obra-lizentzia eman ondorengo sei hilabetetan lan horiek hasi zein edo, obra horiek hasi arren, 6 hilabetetik gora eten badira, instalazio-lizentzia iraungi egingo da. Hala ere, alkateak lizentzia hori luzatu ahal izango du, lizentzia luzatzeko eskaera egin.

Lizentzia iraungitu egingo da obra-lizentzia eman eta 12 hilabetetara lan horiek amaitu ez badira.

Ordenantza honetan jasotako jarduerari hasiera emateko lizentziak iraungitzat joko dira jarduera horiei utzi zaiela egiaztatu eta hurrengo 6 hilabetetara.

Ostalaritza gremioaren kokapena arautzen duen ordenantza hau 2003ko abenduaren 29an onartu zen behin betiko eta 2004ko otsailaren 2an jarri zen indarrean, eta hala jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ALKALTEA

IDAZKARIA